

ALCATEL 332



Telefonoaren
erabilera-gida.



AURKIBIDEA

| | |
|---|----------------|
| Erabiltzeko oharrak | 4. or. |
| Informazio orokorra | 9. or. |
| 1. Telefonoa | 11. or. |
| 1.1 Teklak | 11. or. |
| 1.2 Ikonoak | 13. or. |
| 1.3 Eskuliburu honetako ikurrak | 14. or. |
| 2. Martxan jartzea | 15. or. |
| 2.1 Martxan jartzea | 15. or. |
| 2.2 Telefonoa piztea | 18. or. |
| 2.3 Telefonoa itzaltzea | 18. or. |
| 3. Deiak | 19. or. |
| 3.1 Deiak egitea | 19. or. |
| 3.2 Ahots-postontzira deitzea | 20. or. |
| 3.3 Deiak jasotzea | 20. or. |
| 3.4 Hitz egiten ari zarenean dauden aukerak | 21. or. |
| 3.5 Linea bikoitzaren kudeaketa | 24. or. |
| 4. Deien memoria | 25. or. |
| 5. MENUA | 26. or. |
| 6. Gertaerak | 29. or. |

| | | |
|------------------------|---|----------------|
| 7. Direktorioak | | 30. or. |
| 7.1 | Direktorioetara sartzea | 30. or. |
| 7.2 | Erregistroak sortzea | 32. or. |
| 7.3 | Erregistroak talde batean gordetzea | 33. or. |
| 7.4 | Erabilgarri dauden aukerak | 34. or. |
| 7.5 | Txirrin bat talde batekin lotzea | 36. or. |
| 7.6 | Aldi baterako SIM txartela | 36. or. |
| 8. Mezuak | | 37. or. |
| 8.1 | Mezuetara sartzea | 37. or. |
| 8.2 | Mezuak irakurtzea | 38. or. |
| 8.3 | Mezu laburrak idaztea | 43. or. |
| 8.4 | Testua idazteko laguntza-sistema: Predictiv modua. | 45. or. |
| 8.5 | Mezuak bidaltzea | 48. or. |
| 8.6 | Mezuak ezabatzea | 49. or. |
| 9. Nire aukerak | | 50. or. |
| 9.1 | Soinuak | 50. or. |
| 9.2 | Irudiak | 55. or. |
| 9.3 | Koloretako pantaila | 55. or. |
| 9.4 | Jasotako info. | 56. or. |
| 9.5 | Zooma | 57. or. |
| 9.6 | Zenbakiak | 57. or. |
| 10. Jokoa | | 59. or. |
| 10.1 | Jokora sartzea | 60. or. |
| 10.2 | Erabilgarri dauden aukerak | 61. or. |

| | |
|--------------------------------------|----------------|
| 11. Alarmak | 63. or. |
| 11.1 Iratzargailua | 63. or. |
| 11.2 Hitzordua | 64. or. |
| 11.3 Urtebetetzeak | 64. or. |
| 11.4 Aukerak | 64. or. |
| 12. Kalkulagailua/Bihurgailua | 65. or. |
| 12.1 Kalkulagailua | 65. or. |
| 12.2 Bihurgailua | 66. or. |
| 13. Doikuntzak | 68. or. |
| 13.1 Zerbitzuak | 68. or. |
| 13.2 Erlojua | 76. or. |
| 13.3 Hizkuntzak | 76. or. |
| 13.4 Hiztegia | 76. or. |
| 13.5 Testua sartzeko modua | 77. or. |
| 13.6 Pantaila | 77. or. |
| 13.7 Erantzutea | 77. or. |
| 13.8 Automatikoki deskonektatzea | 78. or. |
| 13.9 Linea bikoitza | 78. or. |
| 13.10 Teklatua blokeatzea | 78. or. |
| 14. WAP | 79. or. |
| 14.1 WAP zerbitzuetara sartzea | 79. or. |
| 14.2 Erabilgarri dauden aukerak | 80. or. |
| 14.3 Sarbidea konfiguratzea | 82. or. |
| 14.4 WAP abiaraztea | 84. or. |
| 15. Bermea | 85. or. |
| 16. Karaktereen taula | 88. or. |
| 17. Osagarriak | 89. or. |
| 18. Arazoak eta irtenbideak | 91. or. |

ERABILTZEKO OHARRAK

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN:**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa erabiltzea debekatzen zaio gidariari.

Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbag-ean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaian edo airbag-a zabaltzen den eremuan,
- telefonoa kanpoko antena bati konektatu edo, bestela, itzali; antenaren kokalekua hautatzerakoan, kontuan izan antenak ez duela egon behar gorputzetik hurbil, salbu tartean bereizteko plaka metalikoa badu (adibidez, ibilgailuaren sabaia),
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, ibilgailu barruko tresnak behar bezala babesturik daudela egiaztatzeko.

• **ERABILTZEKO BALDINTZAK:**

Ez piztu telefonoa hegazkinaren barruan. Arau hau betetzen ez baduzu, baliteke prozesu judizialei aurre egin behar izatea.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan

izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake. Piztuta dagoenean, ez ipini telefonoa aparatu medikoetatik hurbil (taupada-markagailuak, belarriko protesia, intsulina-ponpa...). Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia, kasuaren arabera, duzun aldeko belarrian, baizik beste aldekoan.

Ez piztu telefonoa gas edo produktu sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegieta, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan. Hurrek ez dezatela telefonoa erabili zaintzarik gabe. Ez saiatu telefonoa zuek irekitzen edo konpontzen. Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatel bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili (ikus 17. kapituluko osagarrien zerrenda). Hala ez bada, Alcatel-ek ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik. Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa, etab.). Fabrikatzaileak $-20\text{ }^{\circ}\text{C}$ eta $+40\text{ }^{\circ}\text{C}$ bitarteko tenperatura gomendatzen du. $55\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan ez irakurtzea jartzen duena, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

• **BATERIA:**

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean ohar hauek eduki behar dira kontuan: ez ireki bateria (substanzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago), ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik, ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki $60\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorako tenperaturetan. Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dagoen legearen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera batetarako eta ez erabili inoiz hondatutako bateriak.

• **KARGAGAILUAK:**

Elikadura-sarea duten kargagailuak 0-40 °C bitartean erabiltzeko diseinatuta daude. Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko ekipoen segurtasun-arauak betetzen ditu eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago.

• **UHN ELEKTROMAGNETIKOAK:**

Telefono mugikorren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) arteztarauarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo arteztarau horien funtsezko betebeharra da.

IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK.

Telefono mugikor hau irrati-igorle/-hartzailea da eta nazioarteko eskakizunek (ICNIRP) (1) eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) (2) gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatuz diseinatuta eta fabrikatuta dago.



(1) ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hegoaldeko eta Iparraldeko Afrika eta Asia-Pazifikoa (Taiwan, Korea eta Australia izan ezik).

(2) Europako gomendioa (1999/519/EE) herrialde hauetan aplikatzen da: Europa, Ekialdeko Europa, Israel.

Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Muga horiek aditu independenteek ezarriak dira, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehatzetan oinarrituz, eta segurtasun-tarte garrantzitsua hartzen dute kontuan, guztion segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera.

Telefono mugikorren arauak **“SAR” (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikokoaren Tasa)** izeneko neurri-unitatea definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga **2,0 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste**. Probak potentzia-mailarik altuena igorriz egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreala, normalean, probetan lortutako gehienezko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinaturata dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak.

Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehienezko balioa belarriaren ondorako eta arauaren arabera 0,43 W/kg da. Nahiz eta SAR mailak telefono batetik bestera edo posizio batetik bestera aldatu, maila guztiek irrati-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte.

Zure telefonoak antena integratua du, eta komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu edo hondatu.


Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritziz, “egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrek erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irrati-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera [edo esku libreko kit eramangarria] erabiliz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago” (Memo 193. zk).

MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.






INFORMAZIO OROKORRAK

- Interneteko helbidea: www.alcatel.es
- WAP helbidea: wap.alcatel.com
- Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia: ikus "Alcatel-en zerbitzuak" liburuxka (deia herriko dei gisa fakturatuko da, zure herrialdean indarrean dauden tarifen arabera).

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900MHz eta 1800MHz bandetan.

Zure telefonoak 1999/5/EE (R&TTE) arteztaraua eta bere osagarriek indarrean dauden Europako Erkidego arteztarauak betetzen dituztela ziurtatzen du  markak. Zure telefonoaren Adostasun Deklarazioari buruzko testu zehatzagoa helbide honetan irakur dezakezu: www.alcatel.com.

Lapurretaren aurkako babesa


Telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikaturik dago. Zenbaki hori bilgarriaren etiketan eta telefonoaren memorian agertzen da. Telefonoa erabiltzen hasi aurretik gomendatzen dizugu , , , ,  zenbakia markatzea eta leku seguru batean gordetzea. Izan ere, telefonoa lapurtuz gero, polizia edo operadoreak zenbaki hori eska dezakete. Zenbaki horri esker, mugikorra erabat blokea daiteke (I), hau da, ezingo du beste pertsona batek erabili, ezta SIM txartela aldatuta ere.

2003ko maiatza



(I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

ZURE TELEFONOA



1.1

Teklak



Edizioan ezabatu (labur sakatu).
Aurreko pantailara itzuli (labur sakatu).
Hasierako pantailara itzuli (luze sakatu).



Telefonia piztu / itzali itzarote-pantailatik (luze sakatu).



MENUan sartu / Aukera berretsi (labur sakatu)
Operadorearen zerbitzuetara sartu (luze sakatu).



Bolumena doitu hitz egiten ari zarenean.

Aukera bat hautatzeko nabigatu.

Direktorioan sartu ▲ (beherantz mugitzeko tekla sakatu).

Mezu laburretara sartu ▼ (gorantz mugitzeko tekla sakatu).



Erantzun / eseki

Deien memoria kontsultatu (BIS) (labur sakatu).



Ahots-postontzira deitu (luze sakatu).



Argia piztu / itzali (luze sakatu).

WAPera sartu (luze sakatu) (1).



Teklatua blokeatu edo desblokeatu (luze sakatu).



Maiuskulak, minuskulak, zifrak idatzi, ikurren barrara sartu.



Bibragailua aktibatu / desaktibatu (luze sakatu).



(1) Telefono-modeloaren arabera.

1.2

Ikonoak (1)



Bateriaren karga-maila.



Bibragailua modua: telefonoak dar-dar egiten du, baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen (ikus 52. orrialdea).



Isilik modua: telefonoak ez du ez txirrinik, ez soinurik ateratzen, ezta dar-dar egiten ere (ikus 52. orrialdea).



Gertaerak (kontsultatu beharreko informazioa): ahots-postontzia, erantzun gabeko deiak, irakurri gabeko mezuak, deskargatutako informazioa (ikus 29. orrialdea) eta WAP jakinarazpenak (2).



Mezuen zerrenda bete: terminalak ezin ditu mezu gehiago jaso. Mezu laburren zerrendara joan behar duzu, gutxienez mezu bat ezabatzeko (ikus 49. orrialdea).



Deiak desbideratzea aktibatuta: deiak desbideratu egingo dira (ikus 71. orrialdea).



Hitzordu, urtebetetze edo iratzargailu programatuak (ikus 63 eta 64. orrialdeak).



Estaldura-adierazlea.



(1) Eskuliburu honetan agertzen diren ikono eta ilustrazioak adierazgarri gisa ematen dira.

(2) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Linea-zenbakia adierazten du SIM txartelak bi zenbaki desberdin dituenean (1).



Lehentasunezko tarifa-eremua (1).



Teklatua blokeatuta.



“Sarearen eskuzko bilaketa” modua (ikus 75. orrialdea).



Roaming-a, ordaintzen duzun herrialdean.

1.3

Eskuliburu honetan erabilitako ikurrak

Ikur hauek agertzen dira hurrengo kapituluetan:



Aukera berresteko, labur sakatu nabigazio-teklaren erdian.



Aukera bat hautatzeko, erabili gorantz edo beherantz joateko nabigazio-tekla.



Zifrak, letrak eta puntuazio-ikurrak sartzeko, teklatuko teklak erabili.



(1) Telefono-modeloaren arabera. Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.


2

MARTXAN JARTZEA

2.1 Martxan jartzea


SIM txartela sartzea eta ateratzea (I)

Telefonoa erabili ahal izateko, SIM txartela sartu behar duzu.



Ipini SIM txartela txipa buruz behera duela.

Sartu SIM txartela bere tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela.




SIM txartela ateratzeko, egin bultza behatzarekin.




(I) Telefono honetan SIM txartel hauek erabil daitezke: 3V, 3/5V eta 1,8/3V. Lehengo SIM txartelak, 5 voltekoak, ezin dira erabili. Jarri harremanetan zure operadorearekin.


Bateria instalatzea



Sartu bateria klik egin arte.




Sartu estalkia.




Itxi estalkia klik egin arte.

Bateria kentzea




Sakatu botoia eta altxa estalkia.




1 Bultza egin
Kendu bateria.


Bateria kargatzea



Konektatu kargagailua.




Bateria kargatuta dagoenean, pantailako animazioa gelditu egiten da.



Kargatutakoan, deskonektatu kargagailua.

- Seinale akustiko labur batek kargatzen hasi dela adierazten du.
- Bateria berria bada edo oso deskargatuta baldin badago, baliteke ikonoak denbora pixka bat behar izatea mugitzen hasteko.
- Korrante-hartuneak telefonotik hurbil eta iristeko moduan egon behar du.



Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatel kargagailuak bakarrik erabili.

Telefonoa lehenengo aldiz erabiltzean, kargatu bateria (3 orduz gutxi gorabehera).

Pantailako argiaren intentsitatea optimizatzeko, bateria guztiz kargatu behar duzu.

2.2

Telefonoa piztea





Piztu (luze sakatu)

Sartu PIN kodea, eskatzen bazaizu

Berretsi

Hasierako pantaila

Telefonoak eguna eta ordua sartzeko eskatzen badizu, sartu itzazu eta berretsi  teklaren bidez.

Sarearen bidez banatutako mezuak bistaratzen badira, erabili  tekla mezu guztiak bistartzeko edo sakatu  tekla hasierako pantailara itzultzeko.

Telefonoa sarea bilatzen ari denean <<< - >>> ikurra agertzen da (??? - ??? ikurra agertzen da sareak SIM txartela onartzen ez duenean; kasu horretan, jarri harremanetan operadorearekin).

2.3

Telefonoa itzaltzea

Hasierako pantailan, sakatu  tekla (luze sakatu).



PIN kodea ez badakizu edo ahaztu egin bazaizu, jarri harremanetan operadorearekin.

Ez utzi inoiz PIN kodea telefonotik hurbil, eta txartela erabiltzen ez duzunean gorde leku seguruan.

3

DEIAK

3.1 Deiak egitea



Diga




Markatu zenbakia


Deia egin

Hitz egin

Eseki



Errorea emanez gero, ezabatu zifrak  teklaren bidez.

“+” edo “P” (geldialdia) idazteko,  tekla luze sakatu (karaktere hauek agertuko dira: 0, +, *, P).

Larrialdi-deia egiteko: telefonoa sare baten estalduraren barruan badago, markatu 112 edo zure operadoreak emandako zenbakia.

Nazioarteko deiak egiteko:



Bistaratu “+” aurrezenbakia
(luze sakatu).

Bistaratu zerrenda.


Hautatu herrialdea
edo eskualdea



Berretsi

Herraldea edo eskualdea zuk bila dezakezu izenaren lehen letra sakatuz.

“**País/Regio.**” agertzen denean, solaskidearen zenbakia osatu eta deia egin dezakezu.

3.2 Ahots-postontzira deitzea

Ahots-postontziak erantzungailuak bezala funtzionatzen du, eta nahi duzunean kontsulta dezakezu. Hor sartzeko,  tekla luze sakatu.



“**¿Llamar?**” mezua agertuko da pantailan; berretsi  teklaren bidez edo sakatu  tekla deia egiteko.



Ahots-postontzia atzerrian erabiltzeko, jarri harremanetan operadorearekin bidaia egin aurretik.


Ahots-postontzian sartzeko zenbakirik ez baduzu, sartu operadoreak ordaintzean eman zizun zenbakia. Zenbaki hori aldatzeko, erabili menuko “**Números**” aukera (ikus 57. orrialdea).

3.3 Deiak jasotzea

Deiak jasotzean, sakatu  tekla erantzuteko; sakatu  tekla hitz egiteko eta esekitzeko.




Deia egiten duenaren zenbakia bistaratu egingo da sareak zerbitzu hori eskaintzen badu (galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez).

 bibragailua aktibatuta dago: txirrinak ez du soinurik aterako.

 bibragailua eta txirrina desaktibatuta daude.

Txirrina desaktibatzeko, sakatu  tekla telefonoak jotzen duenean; deia hartu nahi baduzu, sakatu  tekla.

Berriro  tekla sakatzen baduzu, deia hartu gabe moztuko duzu.



3.4

Hitz egiten ari zarenean dauden aukerak

Volumen


Audio bolumena igo / jaitsi

Manos Libres


Esku libreko modua aktibatu / desaktibatu ( ikurraren ordean,  agertuko da)

Oharra: Urrundu telefonoa belarritik aukera hau aktibatuta dagoenean, bolumen anplifikatuak entzumenak kalte baitezake.

En espera (I)

Deia zain utzi (deia gero berriro hartzeko, sakatu  tekla)

Marcar (I)

Beste dei bat egin (uneko deia zain geratuko da automatikoki; hala, solaskide batekin eta bestearekin txandaka jardun zaitezke  tekla sakatuz)




Guardar núm.


Telefono-zenbakia direktorio batean gorde: SIM edo Produktua (Móvil)





(I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.


| | | |
|---|--------------------|--|
|  | Directorio | Direktoria sartu |
| | Mensajes | Mezuak kontsultatu |
| | Servic. (I) | Operadoreak proposatutako zerbitzuetara sartu. |
| | Volver | Aurreko pantailara itzuli |

Dei bikoitza (I)

Seinale akustiko batek bigarren deia jaso duzula jakinaraziko dizu. Dei hori onartzen baduzu, uneko beste deia zain utziko da automatikoki  tekla sakatzean:

Solaskide batetik bestera aldatzeko, sakatu aurrena  tekla eta gero .


Bigarren deia ez onartzeko, sakatu bitan  tekla.



(I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Konferentzia (I)


Telefono honek hainbat pertsonekin aldi berean hitz egiteko aukera ematen dizu.



Dei bikoitz batean ari zara


Hautatu **“Conferencia”**

Berretsi



Konferentzia ezarri da

• Hirugarren deia iritsi da





Hirugarren deia iritsi da

Erantzun eta hitz egin solaskide berriarekin

Berretsi



(I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.




Hautatu
“Conferencia”

Berretsi.

Hirugarren solaskidea konferentzian sartu da

 tekla sakatzean, komunikazioa eteten da hautatutako pertsonarekin.

Konferentzia bat amaitzeko, sakatu  tekla eta hautatu **“Fin conferenc.”** aukera.

3.5

Linea bikoitzaren kudeaketa (1)

SIM txartelak bi linea eduki ditzake bi telefono-zenbaki desberdinekin.

Lehenespenez, 1. linean zaude. Lineaz aldatu nahi baduzu, aukeratu **“Menú/Ajustes/Doble línea/Elecc. línea”** (1).

Hautatutako linea edozein dela ere (1 edo 2), bi lineatako deiak jaso ditzakezu.

Egindako deiak aurrez hautatutako linean fakturatuko dira.



Deia egitean, bolumena  teklaren bidez doi dezakezu.

(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

4

DEIEN MEMORIA

Erabilera eta erabilgarri dauden aukerak




Deien memoriara sartzeko, sakatu  tekla; pantailan egindako azken deien zenbakiak agertuko dira, aurretik ikur hauetako batekin:

 = Deia jasota eta erantzunda.


 = Deia jasota, baina erantzun gabe.

 = Egindako deiak.

Hautatu nahi duzun zenbakia  teklaren bidez eta gero sakatu  deia egiteko.

| | | |
|---|-----------------------|---|
|  | Guardar núm. | Gorde direktorioan hautatutako telefono-zenbakia. |
|  | Modificar Núm. | Aldatu hautatutako telefono-zenbakia. |
|  | Borrar Mem. | Ezabatu deien memoriako zenbaki guztiak. |
| | Volver | Aurreko pantailara itzultzeko. |


Deia egin duenaren zenbakia sarera pasatutakoan bistaratzen da (galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez).

Hasierako pantailara itzultzeko, sakatu  tekla (luze sakatu).

5

MENUA

Hasierako pantailan, sakatu  tekla menura sartzeko.




Hasierako pantaila

Hautatu "MENÚ".

Berretsi.

MENÚko funtzio bat aukeratzeko



Funtzioen zerrenda

Hautatu aukera bat

Berretsi

Itzuli

Aurreko pantailara: Sakatu  tekla (labur sakatu).

Hasierako pantailara: Sakatu  tekla (luze sakatu).

Funtzioen antolamendua

Funtzio hauei buruz informazio gehiago lortzeko, irakurri eskuliburu honetan dagokion kapitulua.



Gertaerak:

Kontsultatu ahots-postontzia, erantzun gabeko deiak, irakurri gabeko mezuak, terminalean deskargatutako informazioa eta WAP jakinarazpenak (1).



Direktoria:

Kontsultatu / sortu erregistroak eta egin deiak direktoriotik.



Mezuak:

Kontsultatu, idatzi eta bidali mezu laburrak.



Nire aukerak:

Pertsonalizatu txirrinak, ikonoak, pizte-/ itzaltze-pantailak eta hasierako pantaila, dei zuzeneko zenbakiak, teklatura, aurrezenbakiak eta telefono-menuaren koloretako pantaila.



(1) Telefono-modeloaren eta hizkuntzaren arabera; galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Jokoa:

Sartu proposatutako jokora.



Nire tribua:

Sartu WAPen berehalako mezularitzaren gune batera (1).



Alarmak:

Programatu telefonoko alarmak (hitzorduak, urtebetetzeak, iratzargailua).





Kalkulagailua eta moneta-bihurgailuak:


Monetak bihurtu (euroak/dibisak...) eta oinarrizko eragiketak egin.



Doikuntzak:

Konfiguratu telefonoa (bistaratzea, formatua...) eta erabili operadoreak proposatutako funtzioak (segurtasuna, deiak desbideratzea...).

MENU nagusia pertsonaliza dezakezu lasterbideak sortuz. Adibidez, “**Sonidos**” aukera menuaren hasieran agertzea nahi baduzu, hautatu aukera hori eta  tekla luze sakatu zerrendako lehen postuan jartzeko.  Ikonoa hautatutako aukeraren ondoren agertzen da.

Ezabatzeko, kokatu ezabatu nahi duzun lasterbidearen gainean eta sakatu  tekla (luze sakatu).



(1) Telefono-modeloaren arabera.

6

GERTAKARIAK

Zu ez zeunden bitartean telefonoan jazotako gertaera guztien berri izan dezakezu.



Mezuak (Mensj.):

Sartu jasotako mezuetara (ikus 37. orrialdea).



Jasotako baina erantzun gabeko deiak (Llam.):

Bistaratu zurekin hitz egiten saiatu diren pertsonen zenbakiak (ikus 25. orrialdea).



Ahots-postontzia (Vocal):

Kontsultatu ahots-postontzia mezu berriak entzuteko (ikus 20. orrialdea).



Jakinarazpenak (WAP) (I) :

Kontsultatu jasotako WAP jakinarazpenak.



Deskargatutako informazioa (Info.):

Kontsultatu deskargatu duzun informazioa.





(I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

7 DIREKTORIOAK

7.1

Direktorioetara sartzea

- Direktorioetara sartzeko,  tekla beherantz sakatu hasierako pantailan.
- Edo MENU aukeran (ikus 26. orrialdea), sakatu  eta gero hautatu **“Directorio”**.



Nahi duzun izena bilatzeko

Zure telefonoak bi direktorio ditu: SIM direktorioa  eta produktu-direktorioa (Móvil) .

Irakurketa errazteko, zure kontaktu guztiak zerrenda berean agertzen dira.

Bi ikonoek kontaktu bakoitza zein direktoriotakoa den adierazten dute:





SIM direktorioa



Telefono-direktorioa (Móvil)



Izenak hasierako letrarekin bilatzea

Solaskidearen izena bere izenaren lehen letra sakatuz bila dezakezu.

Adibidez: sakatu bitan  tekla 'B' letrarekin hasten den lehen izena aurkitzeko. Ondoren, bilatu nahi duzun izena  teklaren bidez. Hizkuntza batzuetan eta testua idazteko moduaren arabera, bilaketa **“Buscar”** aukeraren bidez egiten da (ikus 34. orrialdea).

Solaskideari direktoriorik deitzea

Hiru zenbaki izen berarekin lotzeko aukera duzu: etxekoa, mugikorrekoa, bulegokoa (Domicilio, Móvil, Oficina) (ikus 32. orrialdea). Hainbat zenbaki dituen solaskide bati deitu nahi badiozu, aurrena hautatu zenbaki egokia zerrendan.





edo



Hautatu zenbakia.


Telefono-zenbakiak kontsultatzea






7.2

Erregistroak sortzea

Direktorioak hutsik badaude, mezu hau agertuko da: “**¡Directorio vacío! ¿Crear un registro?**”.

Direktorioetako izenen zerrendan zaudela, sakatu  tekla erregistroa sortzeko.






Direktorio berean, izen bakoitzak hiru zenbaki izan ditzake: Domicilio, Móvil, Oficina.

SIM direktorioan sortutako erregistroak beste telefono batetik kontsulta daitezke.



Telefonoa atzerrian erabiltzen baduzu, sartu direktorioaren zenbakiak “+” nazioarteko formatuaren arabera (ikus 19. orrialdea).



Aukera batetik bestera pasatzeko, sakatu  edo  tekla.









Ez duzu datu guztiak bete beharrik; nahikoa da izen bakoitzarentzat zenbaki bat sartzea.

Direktorio mugikorrean 250 telefono-zenbaki gorde ditzakezu. SIM direktorioaren edukia operadorearen arabera aldatzen da.

7.3

Erregistro bat talde batean gordetzea

Erregistroak bereizteko, talde hauetan sailka ditzakezu: Personal , Profesion. , Otro , Ningun.. Talde bakoitzari txirrin bat esle diezaiokezu. Saillapen horrek laneko deiak dei pertsonaletatik bereizteko aukera emango dizu (1). Jasotako deiak taldeka iragaz ditzakezu. (ikus 73 eta 74. orrialdeak).


Sortutako erregistroak alfabetikoki, taldeka (Personal , Profesion.  Otro , Ningun.) edo direktorio-motaren arabera (SIM edo Móvil) bistara daitezke (ikus 32. orrialdea).




(1) Baldin eta deia egiten duenaren zenbakia bistaratzen bada.

7.4

Erabilgarri dauden aukerak

Direktorioko izenen zerrendan zaudela, sakatu  tekla aukera hauetara sartzeko:

| | | |
|--|-------------------|--|
|  | Consultar | Kontsultatu erregistro bakoitzaren edukia. |
| | Crear | Erregistroa sortu. |
| | Zoom | Aldatu karaktereen tamaina (I). |
| | Buscar | Bilatu izen bat zerrendan (I) testua sartzeko moduaren arabera. |
| | Modificar | Aldatu erregistroaren edukia. |
| | Visualizar | Bistaratu erregistroa alderdi hauen arabera: -Izena -Taldea: pertsonala, profesionala, beste bat, bat ere ez. -Direktoria: SIM gero Móvil |
| | Borrar | Ezabatu hautatutako erregistroa. |
| | Clasificar | Sailkatu hautatutako erregistroa dagokion taldean. |
|  | Timbres | Lotu melodia bat talde batekin. |



(I) Hizkuntzaren arabera.



Copiar

Kopiatu direktorio bateko erregistroa beste direktorio batean.

Copiar todo

Kopiatu direktorio osoa beste batean.

Memoria

Egiatzatu direktorioek erabilgarri duten memoria.





Volver

Itzuli aurreko pantailara.

Direktorio batetik bestera kopiatzea

Direktorio bateko erregistro bat edo edukia beste direktorioan kopia dezakezu.

Jatorrizko direktorioa edo erregistroa gordetzeko aukera duzu.



7.5

Txirrin bat talde batekin lotzea.


Txirrin jakin bat erregistro-talde batekin lot dezakezu. Hala, kontaktuetako baten deia jasotzean, dagokion taldearen txirrinak joko du. Talde bakoitzak ikono bat du eta horrek solaskidea zein taldetakoa den adierazten du (ikus 33. orrialdea).



7.6

Aldi baterako SIM txartela.

Erregistroa sortzean, hiru zenbakirekin lotzeko aukera duzu: Domicilio, Móvil, Oficina.

SIM txartela aldatzen baduzu, informazio-mezua agertuko zaizu telefonoa piztean. Txartel hau SIM txartel nagusia edo aldi baterako erabiltzen ari zaren adierazi beharko duzu:






-  tekla sakatzean: sartu duzun SIM txartel berria, txartel 'nagusia' izango da eta erregistroetan hiru zenbaki sortu ahal izango dituzu (Domicilio, Móvil, Oficina). Lehengo SIM txartela berriro sartzen baduzu, ez dituzu aurkituko izen berarekin lotutako hiru zenbakiak.
-  tekla sakatzean: sartu duzun SIM txartela 'aldi baterako' gisa hartzen da. Beraz, erregistroak zenbaki bakarrarekin sortu ahal izango dituzu. Lehengo SIM txartela (txartel nagusia) sartzen baduzu, hiru zenbakien lotura guztiak berreskuratuko dituzu.

8

MEZUAK (1)

8.1 Mezuetara sartzea

- Hasierako pantailan zaudela, sakatu  tekla gorantz.
- Edo MENUAn (ikus 26. orrialdea), sakatu  tekla eta hautatu “Mensajes” aukera.



| | |
|---------------------|---|
| No leídos | Irakurri mezu berriak. |
| Leídos/Guar. | Kontsultatu irakurritako mezuak. |
| Escribir | Sortu mezu berri bat. |
| Archivos | Ikusi telefono-memorian artxibatutako mezuak. |
| BorrarMens | Ezabatu mezuak kategoriaren arabera. |
| Predefinid. | Osatu aurrez zehaztutako mezua edo sortu zuk zeuk zehaztutako mezuak |
| Zoom | Aldatu karaktereen tamaina (2). |
| Parámetros | Konfiguratu mezuko parametroak eta zerbitzu-zentroko zenbakia, automatikoki proposatzen ez bazaizu (zenbaki hori gabe, ezin dituzu mezu laburrak bidali). |




- (1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.
- (2) Hizkuntzaren arabera.


8.2

Mezuak irakurtzea

Mezuak automatikoki SIM direktorioan gordeko dira, baina telefono-memorian ere gorde ditzakezu **“Archivar”** aukera hautatuz.


“Irakurri gabeko” mezuak

Mezu bat iristean pantailan mezu hau agertuko da: **“¿Leer mensajes?”**, seinale akustikoa (1) eta  ikonoa.

 ikonoa desagertu egingo da **‘Gertaera’** berri guztiak kontsultatutakoan (mezuak, deiak, etab.).


• Berehala irakurtzea


Mezuak berehala irakurri nahi badituzu, sakatu  .




(1) Seinale akustikoa desaktibatzekeo (ikus 50. orrialdea).

• Gero irakurtzea

Aitzitik, mezuak gero irakurtzea nahi baduzu, sakatu  tekla.





SIM txartelaren edukia operadorearen araberakoa da.

 ikonoa memoriaz mezu gehiegi dituzunean agertzen da: ezabatu batzuk.

Erabilagarri dauden aukerak

Mezu bat irakurtzean, aukera hauetara sar zaitezke  tekla sakatuz.



| | |
|---------------------------|---|
| Borrar | Ezabatu hautatutako mezua. |
| Responder | Erantzun jasotako mezuari. |
| Reenviar (1) | Bidali hautatutako mezua hartzailea edo parametroak aldatutakoan. |
| Archivar | Gorde SIM txartelaren mezua telefono-memorian. |
| Guardar núm. | Gorde direktorioan jatorriko edo helburuko zenbakia. |
| Guardar Icono (2) | Gorde ikonoa ikonoen zerrendan. |
| Guardar Anim. (2) | Gorde animazioa animazioen zerrendan. |
| Guardar Sonido (2) | Gorde soinua soinuen zerrendan. |
| Guardar Mens. (1) | Gorde mezua aurrez zehaztutako mezu gisa. |



- (1) Banatzean babestutako objektuak (soinuak, irudiak) izan ezik.
- (2) Jasotako mezuak soinuak, irudiak, ikonoak edo animazioak baldin baditu

Parámetros

Eguneratu parametro hauek:

CentroServicio: zure operadorearen zerbitzu-zentroaren zenbakia (automatikoki proposa daiteke)

Centro E-mail (1): mezu elektronikoa bidaltzeko deia zenbakia (automatikoki proposa daiteke)

Formato: solaskideari bidaliko zaio mezuaren formatua (SMS, mezu elektronikoa, fax...)

Validez: epe horren barruan mezua berriro hartzaileari bidaliko dio sareak huts eginez gero.

Acuse recibo: jaso izanaren adierazpen-zerbitzua aktibatzea / desaktibatzea

Zoom

Aldatu karaktereen tamaina (2)

Volver

Itzuli idazten ari zaren mezura

Irakurritako mezua (“Leídos/Guar.”)

Jasotako eta irakurritako mezua eta idatzitako eta bidalitako edo bidali gabeko mezua dira (SIM txartelean gordetako guztiak).

Jasotakoak:



Jasotako, irakurritako eta gordetako mezu guztiak.


Mezu laburrak ikonoekin, animazioekin, aurpegierekin, soinuekin eta testuekin jaso ditzakezu. Mezuak jasotzean, ikonoak, soinuak eta animazioak gorde ditzakezu gero berriz erabiltzeko.



(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

(2) Hizkuntzaren arabera.

Mezu batek hainbat ikono, soinu edo animazio baldin baditu, hautatu objektua  teklaren bidez eta berretsi  teklarekin.

Mezu batean agertzen den zenbakira/zenbakietara dei dezakezu. Horretarako, sakatu  tekla.

Bidali gabeak:

Idatzitako baina bidali gabeko mezu guztiak.

Bidalitakoak:

Idatzitako, bidalitako eta gordetako mezu guztiak.

“**Parámetros**” aukerako “**Acuse recibo**” funtzioa aktibatuta baldin badago, ikur hauek mezuen egoera adieraziko dizute:



Bidalitako mezua, jaso denaren adierazpenaren zain.



Bidalitako mezua eta jaso izanaren adierazpena jasota.



Mezua bidaltzean huts egin da (kasu horretan, mezua berriro bidali beharko duzu).



Artxibatutako mezuak

SIM txarteletik telefono-memoriara pasatu dituzun irakurritako edo idatzitako mezuak izan daitezke. Telefonoaren memorian 30 mezu gorde ditzakezu.

Mezuak hiru taldetan banatzen dira: jasotakoak, bidali gabeak, bidalitakoak (Recibidos, NoEnviados, Enviados).


8.3

Mezu laburrak idaztea



- Hasierako pantailan zaudela, sakatu  tekla gorantz.
- Edo MENUan (ikus 26. orrialdea), onartu mezuak  tekla sakatuz eta gero **“Mensajes”** aukera hautatuz.

Mezu bat sortu edo lehendik gordetako bat amai dezakezu.


Mezuak testua soilik edo ikonoak, soinuak eta aurpegierak eduki ditzake (ikus 47. orrialdea).



Kurtsorearen tamainak zein modutan zauden adieraziko dizu:

-  modu prediktiboa (modo predictivo, testua idazten laguntzeko sistema, ikus 45. orrialdea) edo
-  modu arrunta

Modu batetik bestera pasatzeko,  tekla luze sakatu.

Testua sartzeko moduaren arabera, aukera hauetara sar zaitezke mezuak idaztean. Horretarako,  tekla sakatu behar duzu.



Azpimarratutako aukerak (ikus 44. orrialdea) modu prediktiboan bakarrik agertuko dira.

| | |
|-------------------------------|---|
| Enviar a | Bidali mezua |
| Añadir icono | Gehitu ikonoak (babestu gabeko EMS ikonoentzat bakarrik balio du) |
| Añadir sonido | Gehitu soinuak (babestu gabeko EMS soinuentzat bakarrik balio du) |
| Añadir caras | Gehitu aurpegierak |
| Vista previa | Mezuaren aurrebista |
| Salir | Mezu aktibotik irteteko eta mezuen menura itzultzeko |
| Guardar Mens. | Gorde mezua |
| Otras | <u>Sartu proposatutako hitzen zerrendara</u> |
| Añadir Palabra | <u>Gehitu hitz bat hiztegian</u> (hizkuntzaren arabera) |
| Insertar núm. | <u>Txertatu zenbakiak</u> |
| Puntuación | Sartu puntuazio-ikurra |
| Modo Predictiv /Normal | Aldatu modu arruntetik modu prediktibora |
| Idioma | <u>Aldatu hiztegiaren hizkuntza</u> |
| Volver | Volver Itzuli aurreko pantailara |

8.4

Testua sartzeko laguntza-sistema (1): ModoPredictiv.

Mezuak idazten laguntzeko, telefonoak laguntza-sistema bat dauka: modo predictivo (modu prediktiboa) (1); modu horren kurtsorea hau da: ■ . Hitz bat idazteko, nahikoa da hitza osatzen duten letren teklak behin sakatzea.



Baliteke bistarutzen den letra zuk nahi duzuna ez izatea: sistemak hitzik arruntena proposatzen du. Beraz, ez hartu kontuan hasieran proposatzen diren hitzak, letrak idazten zoazen heinean egokitzen baita bilaketa.

Hitza idazten amaitutakoan:

- Proposatutako letra zuk nahi duzuna bada:

Sakatu (1, ■) tekla berresteko eta txertatu zuriunea.


- Proposatutako hitza zuk nahi duzuna ez bada:

Sakatu (○, +) letra proposatutako beste hitzak ikusteko eta berretsi nahi duzun hitza (1, ■) tekla sakatuz.



(1) Hizkuntzaren arabera.

Tekla hauek ere erabil ditzakezu:



Telefonoan hiztegia duzu eta hor hitzak gehitu (1), aldatu edo ezaba ditzakezu. Mezu bat idaztean, hitz bat gehi dezakezu **OK** tekla sakatuz eta **“AñadirPalabra”** aukera hautatuz (1).



(1) Hizkuntzaren arabera.

Ikonoak, soinuak, aurpegierak

Mezuak pertsonaliza ditzakezu ikonoak, soinuak edo aurpegierak gehituz, zure emozioak adierazteko:



Ironikoa



Tristeza



Barretsua



Nahasia



Harritia



Alaia



Axolagabea



Negartia



Maitemindua



Maltzurra



Haserretua



Irribarretsua



Eszeptikoa





